

2025eko SANJOAN JAIK IRAGARTZEKO KARTELA EGITEKO LEHIAKETAREN OINARRI ARAUAK

- 1.- Lehiaketa honen xedea da 2025eko San Joan jaiak iragartzeko kartela hautatzea eta parte hartu nahi duen edonorentzat dago zabalik.
- 2.- Jatorrizko lanek 32cm-ko zabalera x 48cm-ko altuera izango dute; ezinbestekoa da formatu digitalean aurkeztea.

Lana formatu digitalean 300ppp*ko erresoluzioan eta CMYKerako koloretan aurkeztu behar da.
- 3.- Kartelak "SANJOANAK 2025" goiburua eraman behar du.
- 4.-Lehiakideak izango dira jabetza intelektualaren ondorioetarako aurkeztu dituzten obren erantzule, baita aurkez litekeen edozein erreklamazioen aurrean ere, irudi eskubidea barne. Ez da onartuko elkarrizketa-laguntzaile edo adimen artifizial sortzaile bidez egindako lanik.
- 5.- Idatzizko eta irudi bidezko komunikazioan, hizkuntza eta irudien erabilera ez-sexista eta ez-arrazista bermatuko da. Bereziki pertsonen irudiak erabiltzekotan, emakumeen eta gizonen presentzia modu orekatuan eta ez estereotipatuan islatuko dira. Udaleko web orrian eskuragarri dago jarraitu beharreko gida: "Komunikazio berdinzalerako jarraibideen gida".
- 6.- Lanak entregatzeko epea **2025eko martxoaren 20n** bukatuko da. Jatorrizko lanak emailaz edo Biteri kultur etxean aurkeztuko dira. Emailaz kultura@hernani.eus helbidera bidali beharko dira eta, lanarekin batera, egilearen izena, helbidea eta telefonoa igorriko dira. Biteri kultur etxean, datu pertsonalak aparteko gutunazal batean aurkeztuko dira. Bai online bai aurrez aurre aurkeztutako lanetan, lanak jaso izanaren ziurtagiria edo mezua jasoko dute egileek. Beraz, erantzunik jasotzen ez bada, lanak behar bezala iritsi ez direla adieraziko du.
- 7.- San Joanetako Jai batzordeak aurkeztutako kartel guztietatik gehienez ere 4 kartel aukeratuko ditu. Ondoren, Hernaniko herritarrek bozka emateko aukera izango dute, presentzialki eta online. Bozka gehien jasotzen dituen kartela proposatuko da San Joan jaiak iragartzeko kartela izan dadin. Kartel irabazlea 2025eko maiatzaren hasieran jakinaraziko da.
- 8.- Sari bakarra 700 eurokoa izango da, 350 euro Hernaniko Berriak elkarteko dendatan erabili beharko dira, eta beste 350 euroak transferentzia bidez ordainduko dira.
- 9.- Saritutako obra Hernaniko Udalak 2025eko Sanjoanetan erabiliko du soilik, obraren jabetza egilearena da.
- 10.-Ezinbestekoa da aurkeztutako lanak 2025eko maiatzaren 31 baino Biteri kultur etxetik erretiratzea; data horretarako erretiratu ezean Udalaren eskuetara pasatuko dira.
- 11.- Lehiaketan parte hartzeak, oinarri hauek bere osotasunean onartzen direla adierazten du.
- 12.- Hauek dira kontuan izan beharreko datak, beraz:
 - Martxoak 20. Proposamenak jasotzeko azken eguna.
 - Martxoan. San Joanetako jai batzordeak 4 kartel aukeratuko ditu.
 - Martxoak 26 apirilak 11. Herritarren bozkak jasotzeko epea.
 - Apirila bukaeran. Kartel irabazlea jakinaraziko da.

Hernanin, 2025eko otsailaren 10ean